



Inoizko parte-hartzaileena izatea du helburu aurtengo KORRIKAK

24. KORRIKAREN ibilbidea prest da: 3436 lekuko - hartze izango dira 24. KORRIKAN zehar, eta 2175 kilometro izango ditu aurten ibilbideak, beraz, inoiz baino parte hartzaileagoa aurreikusten da lasterketa. Edizio honetan, euskararen aldeko ekimen erraldoia Atharratzetik aterako da martxoaren 19an, eta, hamaika egunez Euskal Herri osoa igaro ostean, Bilbon amaituko da, hil bereko 29an, gutxi gorabehera 460 herritatik igaro ostean. Ibilbidearen xehetasunak KORRIKA aplikazioan azaldu dira eskusiban, eta bertan zein [webgunean](#) kontsulta daiteke nondik igaroko den kilometroak eskuratzeko aukera, berriz, otsailaren 1ean zabalduko da.

Abiatzea, Atharratzetik

Ohiturari jarraikiz, aurreko Korrika amaitu zen lurraldean hasiko da oraingoa: Xiberoan, hain zuzen ere. Aurkezpen-egunean iragarri bezala, Atharratzetik emango dio hasiera Korrikari, hainbat arrazoiengatik; nagusia, hauxe: Korrikaren "itzalguneetako" bat da Xiberoako Basabürüa eskualdea. Izan ere, Korrika ez da bertatik pasatzen, abiatzeko ez bada. Handik iragan zen lehen (eta azken) aldia 1985ean izan zen (4. KORRIKA); hots, Atharratzetik abiatu zen urtean.

Alta, euskara sustatzeko eta karrikartzeko beharra sekulan baino agerikoagoa da bertan: Xiberoan eta Basabürüan euskara bizirik dagoen arren, azken inkesta soziolinguistikoaren emaitzek argira dakarte etxeko transmisioa eten egin dela, eskola-transmisioak ez duela % 15 gainditzea erdiesten, eta euskararen erabilera desagertzen ari dela karriketan. Gainera, Xiberoa da, eta bereziki Basabürüa, azken hiru hamarkadetan, biztanle-kopuruaren arabera, euskal hiztun gehien galdu dituen lurraldea/eskualdea.

Abiatzea 15:30ean izango da.

Bilbo, helmuga

Amaierari dagokionez, eta Korrikaren beste ohitura bati jarraikiz, bukaerak bost



hiribururen artean txandakatzen dira: Baionan finitu zen azkena, eta 24. KORRIKAN Bilbok izango du Korrikaren azken metroak ospatzeko ohorea, martxoaren 29an, igandearekin.

Goizeko 07:20ak pasatuta sartuko da Bizkaiko hiriburuan. Eguerdian, lekuko barruko mezu sekretua irakurri dute, euskararen herritik eskuz esku pasatu ostean. Ondoren, egun osoko amaiera-jai handiak hartuko ditu Bilboko kaleak.

Hiriburuak

Ibilbidearen xehetasun guztiak webgunean eta aplikazioan egongo dira, esan bezala. Herriz herri, kalez kale, errepidez errepide... euskara garaera erakutsiko du Korrikak 11 egunez eta 10 gauez. 2.175 kilometro eta 3.436 lekuko-hartze inguru egingo ditu euskararen herrian zehar.

Hiriburuen artean, Maule bisitatuko du lehendabizi Korrikak: Atharratzetik atera eta 16:45ean helduko da horra. Donibane Garazin, ordea, martxoaren 20an, ostiralarekin, izango da, gaueko ordu txikietan (02:50ean).

Iruñera, aldiz, martxoaren 22an iritsiko da, igandearekin; Alde Zaharrera bazkalorduan/bazkalostean helduko da bete-betean, 14:30ean.

Martxoaren 24an, asteartea, Baionaren txanda iritsiko da, 20:30ean. Donostiatik, martxoaren 25ean, asteazkenarekin, ibiliko da: goizeko 08:15ean Altzan, 9:30ean Intxaurren, 11:00etan Amaran, Parte Zaharrean eguerdian (11:55)...

Tipi-tapa! Atsedetik hartu gabe, 27an, ostirala, 21:00ak aldera, Gasteizen lurreratuko da euskararen aldeko ekimen erraldoia.

KORRIKA aplikazioa

Aurreko ediziotik hona, aplikazioa berrikuntzekin dator. Batetik, arestian aipatu bezala, eta 24. KORRIKAREN kantarekin egin bezala, Korrika Laguntzaileek izan dira lehendabizikoak ibilbidearen berri izaten. Haien hainbat informazio eta albiste jasotzen dituzte primizian, baita aplikazioa deskargatuta dutenek ere. Korrikak iraun bitartean, martxoaren 19tik 29ra, eguneko bideokronika bereziak eskainiko dizkiegu aplikazioaren erabiltzaileei.



Ibilbideari lotuta, Korrika zuzenean jarraitzeko aukera ere emango du: batetik, furgonetaren geolokalizazioaren bidez, korrikalariak jakingo dute Korrika garaiz, aurrerapenez edo atzerapenez datorren —hots, erabiltzaileek une oro egiaztatu ahal izango dute nondik dabilen lasterketa—; horri lotuta, interesgarria da jakitea aplikazioak bilatzaile aurreratua duela: erraz ikusi ahal izango da non dauden herri, eskualde eta/edo kilometroak; bestetik, furgonetako zuzeneko irudiak eskainiko ditugu 24 orduz.

Ohiko atalak ere baditu, jakina: Korrika Laguntzaile txartela txertatuta dakar, eta aplikazioaren baitan eramateko aukera eskaintzen du, mugikorrean bertan. Horrez gain, astero Korrika Laguntzaileen arteko zozketak (eta, noski, irabazleak) erakusten dira bertan.

Amaitzeko, aplikazioak aukera ematen du Korrikaren inguruko jakinarazpen eta jakingarri garrantzitsuenen berri primizian jasotzeko —orain arteko gertaerak: aurkezpena, abestia, ibilbidea...—.

IOS zein Android bertsioentzat dago eskuragarri, eta lasterketa bitartean gerta litekeen edozein gorabeherari buruz ere informatuko du; eta, lehen esan bezala, guztiz doakoa da.

DESKARGATU HEMENDIK.

ARABA
Arana kalea, 30
01002 GASTEIZ

BIZKAIA
Txakur kalea 1, 4.a
48005 BILBO

GIPUZKOA
Iztueta kalea 3, behea
20001 DONOSTIA

IPARRALDEA
Marengo karrika, 22
64100 BAIONA

NAFARROA
Errekoleta 16, behea
31001 IRUÑEA